

1. Dokumentazio informatiboaren oinarriak

1.1. DOKUMENTAZIOA DIZIPLINA GISA

Dokumentazio kontzeptua XX. mendean sortu zen, prozesu konplexu baten ondorioz, eta prozesuaren bilakaera praktiko, profesional eta teknologikoaren arabera garatu da kontzeptua. Dokumentazioak hiru alderdi osagarri ditu: zientzia instrumentalarena; zientziarena, zentzu hertsian hartuta, eta informatzeko modu zehatz batena.

- Dokumentazioa, analisi-eremu zehatz batean aplikatua, zientzia instrumentala edo laguntzailea da. Hori dela eta, dokumentazio kimikoaz, ekonomikoaz, juridikoaz, medikoaz eta abarrez hitz egiten dugu. Horrek ez du esan nahi tresna-multzo bat besterik ez dela, besteen zerbitzura jartzen den diziplina dela baizik. Dokumentalistaren lanbidea ere besteen zerbitzura dagoen lana da, beti besteentzat lan egiten duelako, besteen betebeharrak errazteko eta indarrak hobeto banatzeko. Informaziorako eta ikerketarako dokumentazioa da oinarri eraginkorrena zientziak aurrera egin dezan; baita taldeen eta pertsonen garapenerako tresna arrazionalena ere. Ikerketaren errealitatera hurbiltzeko ahalegin bat da, ikuspegi desberdinak ematearren, eta elkarlaguntza zientifikorako sistema baten eskaintza ere bada.

Dokumentazioa zientzia pragmatikotzat jotzen dute (instrumental eta laguntzaileztat), eta bertako profesionalen lana eta bere ikerketa-lerroak ere pragmatikoak dira. Ez du baztertzen, ordea, oinarri eta metodologia orokorren eratzea bere garapenerako, zientzia den aldetik.

- Dokumentazioa berez zientzia bat da, informazio-zientzien barnekoa. Modu metodikoan osatutako eta ordenatutako doktrina-corpora du, eta oinarriak, metodoak eta sistemak sortzen, ikertzen eta aztertzen ditu. Hala ere, dokumentazioaren ikasketa-helburuak informazioa berreskuratzeko prozesuak dira, jakintza-iturri bihur dadin.

Diziplina gazte honek sakabanaketa terminologiko handia du; alde batetik, ikerketa-eremua guztiz zehaztu gabe duelako, eta, bestetik, bere garapen teoriko-kontzeptualaren ondorioz. Gainera, beste jakintza-eremu batzuekin harreman estuak ditu; lehenik eta behin, informazio- eta komunikazio-zientziekin, horko parte bat den aldetik; baita linguistikaren, logikaren, edukiaren eta diskurtsuaren

analisiarekin ere, teknologiarekin eta psikologia kognitiboekin. Zientzia horien arauak eta metodoak oso lagungarriak dira dokumentazioko fenomenoak ulertzeko.

- Informatzeko modu zehatz bat ere bada dokumentazioa. Informazioaren informazioa da, metainformazioa. Bere helburua da ideiak, albisteak eta iritziak jasotzen dituzten dokumentuen eskurapena erraztea. Dokumentazioa eta informazioa elkarri lotuta daude.

Dokumentazioak prozesu kultural eta kognitiboak aztertzen ditu, teknologia-ren laguntzaz. Baina ikasketa- eta praktika-eredu teknizista baten barruan sartu eta prozesu industrial gisa soilik ikusteak pobretu egiten ditu dokumentazioaren diziplina eta lanbidea. Beharrezkoa da dokumentazioaren ondorio indibidualak eta kolektiboak ikertzea; teknologiaz lagunduta, komunikabide berriak diren tresna dokumentalak analizatzea. Dokumentalistaren lana bitartekari eta informazio-ekoizle gisa aztertzea ere ezinbestekoa da. Zientzia berri honen elementuak finkatu egin behar dira, jakintza ekoizpen- eta transferentzia-prozesuetako ikuspegi-tatik aztertu. Literatura anglosaxoian hainbeste aztertzen diren *errepresentazioari* eta *berreskurapenari* beste alor batzuk gehitu behar zaizkie, horrenbeste ikertzen ez direnak: testuen *irakurketa* eta *interpretazioa*, *aukeraketa*, *informazio-beharra*, *erabilera* eta abar.

1.1.1. Kontzeptuaren sorrera

Dokumentazioaren hastapenak XX. mendearen hasieran gertatu ziren Europan, bibliografia zientifikoen bitartez, orduko gizartearen behar informatiboei erantzun nahian. Dokumentu zientifiko eta teknikoaren argitalpena izugarri gehitu zen XIX. mendearen amaieran; eta zer esanik ez XX. mendean¹. Informazio horri guztiorri aurre egiteko, ikuspegi eta modu berriak behar izango dira.

Henri La Fontaine (1853-1943) eta batez ere Paul Otlet (1868-1944) hartzen dira Dokumentazioaren sortzailetzat, diziplina berri gisa. Bi abokatu horiek Bruse-lako *Société des Études Sociales et Politiques* erakundean —1891n sorturiko era-kundea da hau— ezagutu zuten elkar; La Fontainek Sail Bibliografikoaren ardura zuen han. Biak zeuden interesaturik eta kezkatuak zientziaren antolakuntza logiko eta arrazionalarekin.

1892an, *International Office of Bibliography* eratu zuten, bibliografia zientifikoa kontrolatze aldera; 1895ean, Nazioarteko Bibliografia Institutuak hartu

1. Fenomenoaren garrantziaz jabetzeko, hona hemen zenbait datu: 1800. urtean 100 aldizkari zientifiko plazaratu ziren, 1850. urtean 1.000, 1900. urtean 10.000 eta 1990. urtean 150.000. Liburu-argitalpenari dagokionez, 1960. urtean 332.000 liburu argitaratu ziren, eta 1990. urtean 863.000. Dokumentuen ekoizpenaren hazkunde izugarriarekin batera, beste fenomeno bat gertatzen ari da: dokumentu askoren iraupena gutxituz doa. Dokumentuen zaharkitzea bereziki zientzia eta teknika alorretan sumatzen da; izan ere, arlo horien dinamismoak zaharkituta uzten du aurreko informazioa (adibidez, matematika-arloko dokumentu baten iraupena 5-10 urtekoa da), baina gizarte-zientzietan ere gertatzen da zahartze-fenomenoa.

zuen horren ardura. Institutuak, Otlet eta La Fontaineren ardurapean, *Errepertorio Bibliografiko Unibertsala* osatu eta argitaratu zuen, hau da, nazioartean ekoizten zenaren berri ematen zuen lana. Hauek izan ziren lan horren ekarpen nagusiak:

1. Liburuaren eta beste argitalpen guztien mugak gaindituz, dokumentu kontzeptua adierazi zuten, informazio-ekarle eta informazioaren euskarri gisa.
2. Arlo horretan egin beharreko lana nazioarteko lankidetzaren ikuspegitik antolatu beharra zegoela ikusi zen, eta ez banako, elkarte edo talde batzuen ikuspegitik.
3. Informazio zientifikoaren kontsumo eta ekoizpenari buruzko ikerlan zientifiko-sozialaren hasiera ekarri zuen.

Otlet eta La Fontaineek Melvil Dewey-ren *Sailkapen Hamartarraren Sistema* itzuli eta egokitu zuten, eta, hala, euren *Sailkapen Hamartar Unibertsala* sortu zuten.

Dokumentazio hitza, Paul Otleten hainbat artikulutan erabilia, 1920ko hamarkadan hasi zen zabaltzen. 1931n, Nazioarteko Bibliografia Institutuak izena aldatu zuen; aurrerantzean Nazioarteko Dokumentazio Institutua deituko zen. Izen-aldaketa hori bat zetorren hainbat liburutegitan sentitu zuten espezializatorako beharrek, baina, bestalde, *bibliotekonomia* eta *dokumentazio* hitzen inguruan hainbat urte iraun zuen eztabaida piztu zuen. 1938tik aurrera, Institutua *Nazioarteko Dokumentazioaren Federazioa* (FID) bihurtu zen. Federazioa dokumentazioa sustatu eta garatzeko hainbat ekintzaren bultzatzailea izan zen, harik eta 2001. urtean desagertu zen arte.

1934an, Paul Otletek *Traité de Documentation* liburua argitaratu zuen, Bruselan. Harrezkerotik, dokumentazioa zientziazat jotzen hasi ziren. Dokumentazioaren helburua da edozein gertakizun eta jakintzaren inguruan informazio dokumentatua eskaintzea. Informazio dokumentatu horrek izan behar du unibertsala, ziarra eta egiazkoa, osatua, azkarra eta eguneratua, eskuratzen erraza, aldeztatik bildua, jakinarazteko prestatua eta gehiengoaren esku jarria.

1.1.2. Diziplinaren garapena

1920ko hamarkadan, *dokumentazio* hitzaren erabilera zabalduz eta pixkanaka-pixkanaka edukiz betez joan zen; horrekin batera, dokumentalistaren lana ere zehaztu joan zen, liburuzainarenetik banatuz. Halere, hurrengo hamarkadetan ikertzaileak ez ziren ados jartzen diziplina berriaren inguruan; eztabaida zen ea zientzia hori nahikoa heldua zen, oinarri, helburu eta metodologia propioz bazuen. Garai hartako teorialari garrantzitsuenen artean ditugu Samuel C. Bradford britainiarra (1878-1948), Jesse H. Shera estatubatuarra (1903-1982) eta Erich Pietsch (1902-1979) alemaniarra.

Samuel C. Bradford, kimikaria lanbidez, *Society for International Bibliography*-ko lehendakaria eta FIDeko lehendakariordea izan zen, eta dokumentazioko bigarren eskuliburutzat jotzen dena idatzi zuen. Berarentzat, dokumentazioa arte bat da, zeinek eginkizun intelektualen inguruko tankera guztietako dokumentuak bildu, sailkatu eta eskuratzeko eran jartzen dituen.

Jesse H. Shera *American Documentation* aldizkariaren editorea zen, eta, bere ustez, bibliotekonomia orokorra, bibliotekonomia espezializatua eta dokumentazioa, Antolakuntza Bibliografikoaren atalak dira. Alde horretatik, dokumentazioa, edo bibliotekologia —berari hala izendatzea gustatzen zitzaion—, bibliotekonomiaren alderdi bat besterik ez da.

Erich Pietsch kimikaria zen lanbidez, eta Energia Fisikoaren eta Matematikaren Informazio Zentro Nazionala sortu zuen, Karlsruhe-n. Funtzio bibliotekonomikoak eta dokumentalak alderatu zituen eta, bere ustean, nahiz eta bibliotekonomiak eta dokumentazioak lehengai bera erabili, liburuzainek dokumentuak bilatzen eta maneiatzen dituzte, eta dokumentalistek, ordea, dokumentuen edukia, hau da, dokumentuen informazioa atera eta dokumentu berriak osatzen dituzte.

1950eko hamarkadatik aurrera, informazio zientifikoak sortzen zuen interesak, ekoizpen bibliografikoaren gehikuntzak, eta informatikaren eta telekomunikazioen garapenak ikerketa-gaiaren aldaketa ekarri zuten; jadanik ez zen hainbeste aipatzen dokumentua, baizik eta informazioa. AEBetan, Calvin N. Mooers-ek bultzatuta, *Information Retrieval* terminoa (Informazioa Berreskuratzea) sortu zen informazioaren transferentziarekin zerikusia duten ekintzak izendatzeko, prozesu horren alde tekniko eta mekanikoetan arreta jarrita. Termino hori asko erabili da AEBetan, eta *Information Science* kontzeptuaren aitzindaria da.

1.1.3. Diziplinaren izendapenak: dokumentazioa, informazio-zientzia, dokumentazio- eta informazio-zientziak, informatika

1968an, Shera-k eta beste liburuzain espezializatu batzuek *Information Science* terminoa hartu zuten diziplina orokorarentzat, bibliotekonomia eta dokumentazioa haren barnean zirela. Jakintza-eremu horrek testuingurua, hedabideak eta kanalak, eta sailkapen eta antolakuntza bibliografikorako teknikak hartzen zituen bere barnean.

Harold Borko-k honela definitu zuen *Information Science* kontzeptu berria:

Information Science is that discipline that investigates the properties and behavior of information, the forces governing the flow of information, and the means of processing information for optimum accessibility and usability. It is concerned with that body of knowledge relating to the originations, collection, organization, storage, retrieval, interpretation, transmission, transformation, and utilization of information.

AEBetan, *Information Science* zientzia berritatu zuten; bibliotekonomia, linguistika, komunikazio, zibernetika eta informatikaren eremuetatik sortua zen zientzia hori. Izendapen berriak zeharo ordezkatu zuen *Dokumentazio* hitza. Izan ere, egile askorentzat, *dokumentazio* hitza, polisemikoa izateaz gain, oso mugatua zen, diziplinaren gunea *informazioa* baita, eta ez *dokumentua*. *Information Science* terminoaren aldekoak ditugu M. Taube, Ch. Bourne, H.P. Luhn, B. Vickery, J. Taylor eta H. Borko. Egile horiek *Information Science* informazioa gordetzeko eta berreskuratzeko teknikekin lotzen dute. Helburua informazio- eta dokumentazio-sistemen eraginkortasuna izango da, bakoitza bere aldetik kontuan harturik, eta automatizazioari loturik. 1972an Has Weillish-ek *Information Science* terminoaren 39 definizioen ikerketa sistematikoa egin zuen, baina ez zuen lortu hortik gorputz kontzeptual eta terminologikorik ateratzerik. FIDek honela definitu zuen informazio-zientzia:

*Diziplina zientifikoa, zeinek informazio eta dokumentazio zientifikoaren egitura aztertzen duen, baita haien legeak, teoria, historia, metodologia eta antolakuntza ere.*²

Termino berriaren eraginez, 1986tik aurrera, FIDek Informazioaren eta Dokumentazioaren Nazioarteko Federazioa izena hartu zuen, siglak aldatu gabe.

Information Science terminoa herrialde anglofonoetan erabiliko zuten batik bat. Beste lurralde batzuetan, diziplinak beste izen batzuk hartu zituen. Alemanian, esaterako, *Dokumentazio- eta informazio-zientziak* terminoa hedatu zen; hasieran Berlingo Humboldt Unibertsitateko espezialitatea izan zen. Herrialde horretan diziplinak ikuspegi bateratzailea eta integratzailea hartu zuen. Bestalde, lehengo Sobiet Batasunean, non *dokumentazio* terminoak inoiz ez zuen izan arrakasta handirik, *Informatika* terminoarekin izendatu zuten diziplina. Gaur egun, *dokumentazioa*, *informazio-zientzia*, *informazio- eta dokumentazio-zientziak*, *informatika* eta beste termino batzuk baliokidetzat hartzen dira diziplina bera izendatzeko.

1.2. DOKUMENTAZIO-ZERBITZUAK

Eragile nagusia dokumentu-ekoizpenaren hazkundera izan bazen ere, berez herrialde bakoitzean erakunde zehatzen beharrek eragin dute dokumentazioaren garapena sektore ekonomiko gisa, eta horrek ekarri du, zeharka, haren garapen zientifikoa.

Dokumentua oso gauza konplexua da. Informe teknikoak, artikulua zientifikoak edo kazetaritzako erreportajeak ez dira adiera bakarreko informazio-atalak, baizik eta dimentsio anitzekoak, eta karga intelektual handikoak. Dokumentu horien ezaguera eta errepresentazioa eginkizun konplexua da, eta kudeaketak sortzen dituen arazoei aurre egiteko, sena ez da nahikoa, beharrezkoa da metodologia zorrotza.

2. FID. *Cours d'introduction à la Documentation*. La Haye: FID, 1972, 21. or.

Hainbat jardueratan (kazetaritza, medikuntza, administrazio publikoa, ikerketa zientifikoa...) dokumentu asko eta asko ekoizten dira, eta horiek ordenatzeak energia inbertitzea eskatzen du. Ez bada horrelakorik egiten, dokumentuak metatuko dira, baina ezingo dira erabili, ordenamendu erabilgarria ez baita berez sortzen. Informazioaren kudeaketan eraginkortasuna lortzeko, metodo espezifikoak nahitaezkoak dira dokumentuen tratamenduan; hala, nahi den informazioa aurkitzeko beharko den denbora ez da izango gordeta dauden dokumentuen kopuruaren araberakoa; hau da, berdin izango da dokumentu bat bilatzea 1.000, 10.000 edo 100.000 dokumenturen artean.

Dokumentazioak dokumentuen informazioaren errepresentatzea, gordetzea, berreskuratzea eta hedatzea ikertzen du. Informazio-iturriak ustiatzeko sistemak eratzen eta garatzen ditu, ezagutza horiek erabiltzaile-talde baten edo gizarte osoaren esku jartzeko.

Dokumentazioak zenbait espezialitate eta ikerketa-arlo hartzen ditu bere barnean: dokumentuen deskripzio formala egiteko prozeduraz arduratzen da, dokumentu bakoitza, zalantzarik gabe, identifikatuta gera dadin prozedura estandarren bidez, eta metodo horiek baliagarriak izan daitezen edozein dokumentu-mota edo euskarrirentzat, eta, hala, informazio-trukaketa eta ezagutzarako sarbide unibertsala ahalbidetzen ditu; dokumentuen edukia aztertzeo eta deskribatzeko metodoak ikertzen ditu, dokumentuak haien eduki semantikoan oinarrituta aurkitu ahal izateko, eta ez bakarrik alde aurretik dokumentuak badaudela dakigunean; dokumentuen analisi, errepresentazio, gordetze eta berreskuratzearen automatizazioa ikertzen du; erabiltzaile edota erakunde baten informazio-beharrak asetzeko, informazio dokumentaleko sistemek eduki behar duten egitura ikertzen du; informazioaren ezaugarriak aztertzen ditu, eta baita ezagutzaren prozesuak ere; eta, oro har, informazioak dituen alde legalak, estatistikoak, ekonomikoak eta gizartekoak interesatzen zaizkio: erreproduktzio-eskubideak, egile-eskubideak, irakurketa publikoaren funtzioa, informazioaren eta kulturaren hedapenerako herrialde eta nazioarteko politikak, kultura-ondarea, informazio-industrien ekoizpenak, eta abar.

Dokumentazioa lanbide bat da, eta bere barnean sartzen dira, espezializazio desberdinekin, informazio dokumentaleko sistemak diseinatzeaz, eratzeaz eta ustiatzeaz arduratzen diren profesionalak. Jarduera ekonomikoa ere bada, hain zuzen, herrialdeek daukaten azpiegitura zientifiko eta teknikoaren barrukoa, eta bi erakunde-motatan gauzatzen da: dokumentazio-zerbitzuetan eta liburutegietan.

Liburutegiak “irakurketa publikoa” kontzeptuari lotuta daude, hau da, herri-tarrok kulturaz jabetzeko dauzkagun eskubideei. Dokumentazio-zerbitzuak, berriz, dokumentazio zientifiko eta teknikoari lotuta daude, edo erabiltzaile-talde zehatzei, gehienetan ezagutza-esparru espezializatuetan. Horregatik, dokumentazio-zerbitzuetan liburuak baino gehiago izaten dira aldizkako argitalpenak eta literatura grisa (argitaratu gabeko dokumentuak edo bide arruntetatik plazaratzen ez direnak;

adibidez, barne-txostenak, lan-dokumentuak, kongresuetako materiala...). Halere, liburutegien eta dokumentazio-zerbitzuen arteko mugak ez dira beti garbi izaten, eta zerbitzu baten izendapena nahiko arbitrarioa izan liteke, edo tradizioaren eraginak zerikusi handia izan lezake horretan; adibidez, egunkarietako dokumentazio-zerbitzuei askotan *artxiboak* deitzen zaie. Herrialde anglosaxoietan, dokumentazio-zerbitzuek *special libraries* edota *information centres* izenak hartzen dituzte.

Dokumentazioan dokumentu kognitiboek dute interesa, hain zuzen gizarteko sormen kultural, zientifiko edo teknikoa jasotzen duten dokumentuek. Artxiboek, ordea, dokumentu administratiboak jasotzen dituzte, hau da, erakunde, enpresa edo pertsona pribatuek beren eginkizunetan sortutakoak (kontratuak, ordainagiriak, eskaerak, proiektuak...). Dokumentu horiek bere horretan ez dute “baliorik”; bai, ordea, dagokien espedientearen barruan eta horien sailean.

1.3. DOKUMENTAZIO INFORMATIBOA

Paul Otleten izkribuetan, dokumentazioak bere oinarri zientifikoak Informazioaren eta Komunikazioaren Teoria Orokorretik hartu zituen, eta diziplina informazio-zientzien barruan sartu zen, zientzia horiek informazioaren transmisio- eta berreskuratze-prozesuak ikertzen dituztelako. Dokumentazio-prozesua informazio-prozesuaren osagarri da: informazioa berreskuratu egiten da informazio-iturri berriak lortzeko.

Dokumentazio informatiboaren diziplinak dokumentazioaren printzipio teoriko, metodologiko eta praktikoak ikertzen eta erabiltzen ditu, komunikazio-zientzietan eta komunikazio-enpresetan egiten den lan informatiboaren zerbitzura.

Bere sortzetik, kazetaritzako dokumentazioaren helburua izan da *informazioa informatzea*. Komunikabideetan, helburu hori lortzen da erredaktoreek, informazio orokorra osatzeko behar duten atzera-begirako informazioaz hornitzeko, informazio guztia aztertu, artxibatu eta berreskuratzen dutenean (Galdón 1986, 20).

XX. mendean, kazetaritza berriak izan zuen garapenari esker, dokumentazioa aintzat hartu eta zerbitzuak hobetu ziren. Era berean, zerbitzu horien bilakaerak lagundu zuen komunikabideen aurrerakuntzan; izan ere, informazioa sakonago aztertzen zen, eta formula eta genero berriak sortu ziren. Aurrerantzean, komunikabide guztietan dokumentazioa oinarritzkoa izango zen informazio-lana ahalik eta modu egokienean aurrera ateratzeko.

1.4. DOKUMENTUA. DOKUMENTU-MOTAK

Komunikazioak eta informazioak betidanik gizarte-harremanen nolakotasuna azaldu izan dute. Ezagutza beti hasten da gertatzen, egiten edota pentsatzen denaren inguruko informazioarekin; eta gizarte-harremanek eta eginkizunek komunikazioa

eragiten dute. Halaber, harreman eta eginkizun horien funtsa eta ematen zaien garrantzia gaur egungo gizartearen ezaugarri bihurtu dira. Pertsonen arteko komunikazioari masa-komunikazioa gehitu zaio, zeinek informazio asko transmititzen duen audientzia zabal bati zuzenduta.

Gizakien arteko komunikazio zuzena denboraren eta lekuaren mende dago. Teknologiek urruntasuna ezabatzen dute, baina komunikazioak denboran iraunkorra izateko “arrastoa” utzi behar du, informazioa euskarri batean erregistratu behar da, eskuizkribu, liburu, marrazki, argazki, disko edo beste edozein euskarritan, hau da, dokumenturen batean. Horren bidez, mezuak modu diakronikoan eskuratu ahal dira, eta, hala, iraupen informatiboa sortzen da eta mezuak antola daitezke, ondoren, informazio hori era askotan erabili ahal izateko.

Informazioa da dokumentuak duen ezaugarri bereizgarria. Dokumentuaren helburua ezagutza hedatzea denez, dokumentuaren erabilerak egiaztatuko du horren balioa. Hau da, informazioa mezu batek duen kalitate potentziala da, eta bere benetako funtzioa betetzeko jasotzaile bat behar du:

Dokumentua da euskarri iraunkorrean erantsita dagoen edozein mezu —ikonikoa edo sinbolikoa— helburu informatiboarekin erabilia (Martínez 1996, 61).

Euskarriaren, mezuaren kodearen eta igortzeko eta hedatzeko eraren arabera bereizten dira dokumentuak bata bestetik.

- Euskarriak: paperezkoak (liburuak, notiziak, liburuxkak...); euskarri magnetikoak (zintak, bideo-zintak, disketeak...); euskarri optikoak, hau da, laser-izpien bidez idatziak eta irakurtzekoak, eta plastikozkoak, aluminiozkoak eta beste zenbait materialetakoak izan daitezke; euskarri kimiko argiarekiko sentikorrek (filmak, negatiboak, diapositibak), etab.
- Mezuaren kodeak: testu idatziak, grafikoak (mapak, planoak), ikonografikoak (argazkiak, koadroak), entzunezko dokumentuak (zintak, diskoak), ikus-entzunezko dokumentuak (filmak, bideoak), hiru dimentsiokoak (maketak, monumentuak, museoek gordetzen dituztenak), informatikoak (ordenagailuen bitartez irakurtzen direnak) edo multimedia (aurreko kodeak konbinatzen dituztenak).
- Dokumentuak beren arlo tematikoaren arabera, maila intelektualaren arabera (zientifikoak, teknikoak edo dibulgaziokoak) edo hedapenaren arabera ere (argitaratua, argitaragabea, publikoa, pribatua, pertsonala) sailka ditzakegu.
- Dokumentu idatzi eta argitaratuak, halaber, luzeraren arabera desberdintzen dira:
 - a) Liburua: 48 orrialde baino gehiagoko dokumentua, eta unitate bibliografikoa dena.

- b) Liburuxka: gehien jota 48 orrialde dituen dokumentua, eta unitate bibliografikoa dena.
- Dokumentuaren aldizkakotasunaren arabera, banaketa hau daukagu:
 - a) Argitalpen monografikoa: testua, irudia edo biak dituen argitalpena, zuzenean irakur daitekeena, eta liburu bakar batean edota liburuki mugatu batzuetan osatua dena.
 - b) Aldizkako argitalpena: argitalpen-mota hau, inprimatua edo ez, faszikulu edota liburuki jarraitua eta zenbakitua (zenbakiekin edota indikazio kronologikoekin), aldian behin ematen da argitara, bukaera zehaztu gabe.
- Dokumentuek duten egitura eta informazioa kontuan hartuta, berriz, honako hauek dauzkagu:
 - a) Lehen mailako dokumentuak: jatorrizko informazioa osoa eskaintzen dutenak.
 - b) Bigarren mailako dokumentuak: lehen mailako dokumentuak deskribatzen dituztenak (bibliografiak, katalogoak, indizeen buletinak)³.

BIBLIOGRAFIA OSAGARRIA

Abadal Falgueras, E. (1994). *La Documentación en España*. Madrid: CINDOC (CSIC); FESABID.

Fuentes i Pujol, M.E. (1997). *Documentación y periodismo*. Pamplona: Eunsa.

Galdón López, G. (1986). *El Servicio de documentación de prensa: funciones y métodos*. Barcelona: Mitre.

García Gutiérrez, A. (1999a). “Aproximación al concepto y al objeto de la Información/Documentación”. In García Gutiérrez, A. (ed. apail.). *Introducción a la documentación informativa y periodística*. Alcalá de Guadaíra (Sevilla): MAD, 23-61 orr.

López Yepes, J. (1978). *Teoría de la Documentación*. Pamplona: Eunsa.

———, (1993). *¿Qué es Documentación? Teoría e historia del concepto en España*. Madrid: Síntesis.

———, (konp.) (1989). *Fundamentos de información y documentación*. Madrid: Eudema.

3. Egile batzuek hirugarren mailako dokumentuak ere aipatzen dituzte. Ez dago adostasunik horiek zehazterakoan; halere, esan dezakegu hirugarren mailako dokumentuek lehen mailako informazioa eskaintzen dutela, hau da, jatorrizkoa, baina, nahiz eta erreferentzialak ez izan, bigarren mailako egitura dutela (adibidez, hiztegiak, lexikoak, thesaurusak, entziklopediak).

- , (koord.) (1996). *Manual de información y documentación*. Madrid: Pirámide.
- Martínez Comeche, J.A. (1996). “El mensaje documentario y el documento”. In LÓPEZ YEPES, J. (koord.). *Manual de información y documentación*. Madrid: Pirámide, 48-61. orr.